

BOZKA LKN



Manolito Rastamán...2014



LANAREN KONFERAKUNDE NAGUSIA

www.cgt-lkn.org
www.rojoynegro.info

BOZKA LKN

Lanaren Konfederakunde Nagusia (LKN) langileen arteko erakundea da. Erabakiak batzarraren bitartez hartzen dira eta gizartearen eraldaketa du helburu, bidezkoa, berdinkoia eta askea eraikitzeko. Eraldaketa hau lortzeko, LKN urbileko errealitatearen gain eraginez hasten da, bainan ez da horretan gelditzen eta bizitzaren beste esparruetara zabaltzen du bere eragina (etxebizitza, osasungintza, irakaskuntza, inguru-giroa, edozein eratako diskriminazioak, antimilitarismoa, zerbitzu publikoak...)

ERREALITEA ERALDATU BEHARRA DAGO.

Gaur egun, edozein lantegian, **prekariatatea aurrez aurre ikus dezakegu**: ordaintzeko maila bikoitzak, erosteko ahalmenaren galtzea eta mixeriazko soldatak, lan erritmoen azkartzea, malgutasun eta mugikortasuna, txanda aldaketak eta galdetu gabe **erregimenaren sindikatuekin hitzartutako lan eskubideen murrizketak**, enpresen itxierak, deslokalizazioak, kaleratze masiboak... gizarteak naturaltasunez onartzen duen amairik gabeko zerrenda osa genezake.

Gauza guzti hauen kontra hain zuzen ere borrokatzen da LKN.

Langileak gure interesen defentsan elkartzen garenean, gurekin zer ikusirik duten erabakiak gu geu hartzen ditugunean, **aldaketa posiblea dela ohartzen garenean eta gure artean antolatzen garenean**, guri dagozkigun aferen gaineko ardurari eutsiz, orduan hasten baida nahi dugun eraldaketa.

ZERGATIK LKN?

LKN osatzen dugun langileon interesetaz gain, sindikatuak ez du kanpoko inolako menpekotasunik. **Estruktura politiko, enpresarial, erligioso edo dana dalakoetaz at**, erabakiak zuzeneko demokraziak eskaintzen dituen mekanismoen bitartez hartzen ditu: afiliatu bat, bozka bat. LKNko delegatuak, bozeramaileak dira; beren lankideek hautatutakoak, gure modelo sindikala garatzeko, partehartzean, erreibindikazioan eta mobilizazioan oinarritua.

LKNk aurera daraman ildo sindikala **ez du zer ikusirik** erregimenaren sindikatuak praktikatzen duten sindikalgintzarekin. Erabiltzen baiditugu gure izaera propiaren ikur diren partehartzea, elkartasuna, traspazientzia, etika eta zuzeneko ekintza. Gure erronka eta arazoak zuzenean azaltzen dizkiogu enpresari, inorren bitartekaritza gabe, **erabakiak guztion artean hartuz**.

Hoiexek dira hain zuzen ere, LKNko kideak enpresa batzordeetarako bozketatan parte hartzea erabakitzen dutenean, aldaketa ahalbidetzen duten mekanismoak.

Horregatik zure bozka LKNrentzako eskatzen dizugu. Horregatik, LKNn parte har dezazula nahi dugu. Ala eta guztiz ere azkenean besterik erabakitzen baldin ba duzu, ez zaitzatela manipulatu. Erabakiak zu zeu har itzazu. Ez iezaezu txeke txuri bat eman zure bozkarekin batera, hori denok ordaintzen dugun duingabetasun handia baida.

Zu zeu erabaki dezazun. Zure bizitzaren gidari izan zaitez.

LKN bozkatzea konprometzua eta zintzotasuna bozkatzea da.

EZ ZALANTZARIK IZAN BOZKA LKN